

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### SEGURTASUN SAILA

## 2367

*EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 9koa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-taulan argitaratu dela 2023ko maiatzaren 8ko Ebazpena, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategoriako karrerako funtzionarioa izendatzen duena.*

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiak 2019ko abenduaren 20an eman zuen ebazpenaren, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategorian sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdiari buruzkoaren, hamaseigarren oinarriarekin bat etorriz (EHAA, 4. zk., urtarrilaren 8koa), eta Segurtasun Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 9. artikulua ematen dizkidan eskumenak direla bide, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakinarazten da 2023ko maiatzaren 8an Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-taulan argitaratu dela Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2023ko maiatzaren 8ko ebazpena, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategoriako karrerako funtzionarioa izendatzen duena.

Bigarrena.– Ebazpen honekin ez da amaitzen administrazio-bidea, eta interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Segurtasun sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 9a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,  
MIREN GOITIA GABIOLA.